

Euskal Herria munduko herrialde kutsatzaileen artean dago

Euskal herritarren berotegi-efektuko gas isurketa, batez beste, mundu mailakoaren ia bikoitza da. Ondorio hori eta beste hainbat bildu ditu GAINDEGIA behategiak ezagutzera eman berri duen Adierazle Galeria Nagusiaren txostenean.

Gaindegiak 2007tik urtero eman du argitara Adierazle Galeria Nagusiaren txostena, baina oraingoan ohiko demografia, ekonomia eta gizartea atalak lantzeaz gain, lehen aldiz bildu ditu inguruari buruzko datuak. Atal berri horretan aldaketa klimatikoa, airearen kutsadura, hala nola Euskal Herriko energia eta elikagaien kontsumoa eta jatorria landu du.

Atal berriko zifren arabera, munduan biztanleko berotegi-efektuko gas gehien isurtzen duten herrialdeak Qatar, Kuwait, Bahrain, Arabiar Emirerri Batuak, Kanada, Luxenburgoko eta Saudi Arabia dira, hurrenez hurren. Europar Batasunera (EB-27) etorruta, Luxenburgoko ez ezik, Irlanda, Txekia, Zipre, Estonia eta Herbehereak dira biztanleko herrialde kutsatzaileenak. Herrialde horietan, 2019 urtean, zuzeneko isurketen bolumena biztanleko 11-13 CO₂ tona artekoa izan zen. Aldiz, Euskal Herrian CO₂ gutxiago isuri zen biztanleko, zehazki 8,8 tona. Hala eta guztiz ere, urte horretan bertan, mundu mailan 4,5 CO₂ tona isuri ziren biztanleko. Euskal Herriak, beraz, mundu mailako isurketa ratioa ia bikoiztu zuen.

Energia kontsumoari ere erreparatzen dio argitaratu berri den txostenak. Osasun larrialdiak eragindako atzeraldi ekonomikoaren eraginez, 2020 urtean energia kontsumoa %9,2 murriztu zen Euskal Herrian. EB-27aren kasuan murrizketa hori %5,6koa izan zen. Hala izanik ere, Euskal Herriko biztanleko energia kontsumoak beste behin ere EB-27koa gainditu zuen. Kontsumo horren oinarrian euskal ekonomiaren nortasun industrialak dago, "izaera industrialeko erregioetan bezala energia asko behar baita gurean".

Petrolioak da, bestalde, energia iturririk garrantzitsuenak Euskal Herrian. Petrolioak energia kontsumo osoaren %43 hornitu zuen 2020 urtean, elektrizitateak eta gas naturalak kontsumoaren %24 eta %22, hurrenez hurren, eta, azkenik, energia berriztagarriek kontsumoaren %9. Behategiaren esanetan, "2019 urtean Hego Euskal Herrian kontsumituriko produktu energetikoen %46 Espainiar estatutik iritsi zen". Ez dago Espainiar estatutik etorritako energiari buruzko datu gaurkotuagorik, baina Ukrainako gerra hasi zenetik nabarmen murriztu dira Errusiako energia inportazioak eta Ameriketako Estatu Batuek (AEB) lehen Errusiarena zen lekua hartu du. Mexiko,

Kazakhstan, Libia edo Norvegia dira Euskal Herriko beste energia inportatzaile esanguratsuenak. Halere, energia hornitzaileak dibertsifikatzeko beharragatik, inportatzaile gisa Brasil, Angola, Ekuatore Ginea, Libia edo Nigeriaren garrantzia geroz eta handiagoa da.

Demografia alorrean, osasun larrialdiak joera aldaketa eragin du. Izan ere, 2014az geroztik ematen ari zen biztanleria hazkundera eten egin zen eta beheranzko joera mantendu da 2022 urtean. Besteak beste, biztanleriaren galera eragin duten faktoreen artean hiru identifikatzen ditu Gaindegiak: osasun larrialdia hasi zenetik pairatutako hilkortasun handia, immigrazio fluxuen jaitsiera eta jaiotzen gainbehera. Egun Euskal Herrian hain da txikia jaiotza kopurua, "azken laurogei urteotan ez baita orain bezain jaiotza kopuru txikia erregistratu". Jatorri atzerritarreko herritarrengatik ez balitz, ordea, jaiotzen gainbehera are handiagoa litzateke. Edonola ere, Ipar Euskal Herriak Hegoaldeak baino hobeto eusten dio ugalkortasunari.

Jaiotzen egungo gainbeherak etorkizun are konplexuagoa marrazten du. Izan ere, euskal jendartearen 1958-1979 epealdian jaiotako herritarrak dira ugariak, baina ez dago baldintzarik belaunaldi horien lekukoa hartuko duten belaunaldirik eratzeko. Zentzu horretan, "Euskal Herriak abian den tamainako zahartze demografikorik ez du ezagutu".

Historikoki, ekonomiaren martxa izan ohi da joera demografikoak baldintzatzen dituen faktore nagusia. Ildo horretan, Ukrainako gerrak osasun larrialdi osteko ekonomiaren susperraldia zapuztu duela egiaztatu da 2022 urtearen amaieran, baina Euskal Herrian, momentuz, 2023 urterako ez da atzeraldirik aurreikusten. Bestalde, Euskal Herria lehiakortasuna galtzen ari dela nabarmentzen du Gaindegiako txostenak eta baieztapen hori datuetara ekartzen du: "hamar urteren buruan, biztanleko BPG handieneko Europako erregioen rankingean 48. postutik 73.ra pasa da (2020)". Berrikuntzari loturiko jarduera ekonomikoak berrindartzen ari dira Euskal Herrian, baina "ihes egindako Europako trenaren atzetik dabilela" argitzen du. Izan ere, Euskal Herrian I+Gra bideratutako BPGaren proportzioa ez baita oraindik EB-27ko inbertsiora iristen.

Gizarte atalean, Euskal Herrian pobrezia arriskuak gora egin du. Hala, azken datuen arabera euskal herritarren %12 pobrezia arriskuan da. Kopuru gordinetan 380.200 pertsona dira, urtebete lehenago baino 48.500 gehiago, alegia. Enplegu sorrera gorabidean da eta herritarren jarduera-maila pandemia aurreko mailara itzuli da, baina euskal gazteen artean langabezia esanguratsua da. Enplegu eza leuntzeko eta bestelako behar sozialei aurre egiteko, hain zuzen ere, gizarte babeseko inbertsioari erreparatzen dio txostenak.

Honen ildotik, Ipar Euskal Herrian indarrean den babes sozialerako gastu-maila Europako handienetakoa da, baina Hego Euskal Herrikoa ez da iristen EB-27ko batez bestekora. Ipar Euskal Herrian, besteak beste, etxebizitza politika, familia eta seme-alabak sostengatzeko eskuhartzea edota langabezia pairatzen dutenen babesa, proportzioan, Hego Euskal Herrian baino nabarmen handiagoa dela nabarmentzen du Gaindegiaren argitalpenak.